



Udan, hitzordua Familia Turismoarekin

Udako eskola-oporrak une ezin hobea dira jarduerak familian egiteko. Santa Maria Katedrala Fundazioak, ohi bezala, familiei zuzendutako hainbat ekimen programatu ditu berriro ere; horien artean, "Pilares Doktoarean" bisitak eta aire zabaleko "Zinema Elizpean" zinema zikloa nabarmentzen dira.

Lehenengo kasuan, "Pilares Doktoareak" oso bisita gidatu berezia eskainiko du 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Umeek, Katedral batean aplikatu beharreko zainketak nolakoak diren jakiteko aukera izango dute. Bi saio programatuko dira, uztailaren 13an eta 20an, 75 minutukoak. Jarduerak irauten duen bitartean adin txikikoak bakarrik egon behar dutenez, Fundazioak, bisita paralelo batean izena emateko aukera ematen die gurasoei.

Jarduera horren prezioak eta ordutegiak eta erreserbaren kuadeaketa katedralaren webgunean (www.catedralvitoria.eus) edo 945 255135 telefono-zenbakian kontsulta daitezke.

"Zinema Elizpean"

Udako beste ohiko jardueretako bat aire zabaleko zinema programa da. Horrela, Santa Maria Plaza auditorium bihurtuko da berriro, "Vitoria-Gasteiz zinema hiriarren" proposamenari eta Laboral Kutxaren babesari esker. Horrela, "Zinema Elizpean" ekimenak lau film proiektatuko ditu: uztailaren 29ko gauean (**Un cadáver a los postres**), abuztuaren 26koan (**El secreto de la pirámide**), abuztuaren 27koan (**A todo tren destino Asturias**) eta irailaren 3koan (**Dios mío, los niños han vuelto**).

UN PÓRTICO DE CINE

UN PÓRTICO DE CINE

Uztailak 29 22:00
Julio

Un cadáver a los postres

Abuztuak 26 21:15
Agosto

El secreto de la pirámide

ZINEMA ELIZPEAN

Santa Maria Katedralako elizpean / Pórtico de la Catedral de Santa María

Abuztuak 27 21:15
Agosto

A TODO TREN DESTINO ASTURIAS

Irailak 3 21:00
Septiembre

DIOS MÍO, LOS NIÑOS HAN VUELTO!

Santa Maria Katedralako elizpean



Fundazioa, Erroman “Loriaren arkupeari” eskainitako jardunaldian

Santa Maria Katedrala Fundazioa, joan den ekainaren 23an eta 24an Espainiak Italian duen enbaxadan “Konpostelako Donejakueko katedrala eta Loriaren Arkupearen zaharberritzea” gaiaren inguruan egin zen Topaketan parte hartzeko Erromako Espainiako Errege Akademiak gonbidatutako erakundeetako bat izan zen.

Gasteizko Santa Maria Katedralaren zaharberritzean egiten ari diren dokumen-

tazio-lanari eta informazioaren kudeaketari esker, Espainiako Kultura Ondarearen Institutuarekin eta Donejakueko Katedrala Fundazioarekin akordioa lortu zen, Donejakueko Loriaren arkupea zaharberritzeko garaian monumentuaren informazio-sistema ezartzeko.

Iñaki Korosok aurkeztu zituen, online, Santa Maria Katedrala Fundazioak elizpe horretan gauzatutako azken zaharberritzean egindako lanaren xehetasunak.



Musika betean uztailaren eta abuztuaren

Ekainaren 21ean, Musikaren Egunean, Udal Bandaren eta Manuel Iradier Abesbatzaren Ezohiko Kontzertuaren agertoki izan zen Katedrala. Ekitaldia Andre Maria Zuriaren Kofradiak antolatatu zuen, “farolen prozesioaren” 125. urteurrenean.

Gainera, aperitibo gisa, ekainean eta uztailaren hasieran Santa Maria Elizpeak abesbatzen ohiko kontzertuak hartu zituen, Arabako Abesbatzen Federazioarekin eta Laboral Kutxaren babesarekin batera antolatuta. Uztailaren 8an denboraldiko azken kontzertua izango da, Badaia, Manuel Iradier, Mairu eta Kataliturri abesbatzen partaidetzarekin.

XV. Nazioarteko Jaialdia

Halaber, Katedralak bere apustu musikari eutsiko dio abuztuaren, Luis Aramburu Eskolarekin eta Vital Fundazioarekin elkarlanean antolatutako Gasteizko Nazioarteko XV. Musika Jaialdiarekin. Gasteizko Bakarlariak Taldeak eskainiko dituen kontzertuak abuztuaren 16an eta 18an izango dira.

“Kontzertuan eta Irekita” data aldaketak

“Kontzertuan eta Irekita” ekimenaren antolaketak aldatu behar izan du Tomas Merloren eskutik ekainaren 25erako aurreikusita zegoen zikloko lehenengo emanaldiaren data, jaialdiaz kanpoko arrazoiengatik. Horrela, Chapman Stick izenekoaren mundu mailako adierazgarritzat jotzen den musikari, moldatzaile eta konpositore ezagunaren kontzertua irailaren 10ean izango da, 20:30ean.

Era berean, antolatzaileek iragarri dutenez, agortu egin dira 4 kontzertuetara joateko abonauk, baita Pablo Milanesen



kontzerturako banakako sarrerak ere. Uztailaren 9tik aurrera, gainerako emanaldietarako banakako sarrerak jarriko dira salgai. Lehen uztailaren 9an izango da, Mikel Inunziaga “Inun” euskal kantariaren eskutik, eta ondoren: “Metropolitan Union” (uztailak 16), Pablo Milanés (uztailak 23) eta aipatutako Tomas Merlo (irailak 10).